


UDABERRIA

Goiz huntan alaitasuna :
xoriak ohartu dira
kanpoa atzartzen dela ;
gaur dugu udaberria!

Primaderako liliak
begietan festa dakar.
Usain goxo bat hartu du soroak*,
loraturik dena.

Errepika atera du kukuak
zuhaitz hostailean gordea.

* soroak : pentzeak, belardiak



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua gogoz ikasi. Irudikapena landu. Erritmoaren zuzentasuna eta zehaztasuna landu.	- Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. - Musika talde-ihardueretan parte hartu. - Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. - Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.	- Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. - Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. - Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gostuak adierazi, beste obretan ere.
MUNDUARI OHARTU. Urtaro baten giroan murgildu.	Animalien eta landareen biziaren ezaubideei ohartu.	Bere burua denbora hurbilean kokatu eta hasi kronologiari ohartzen.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Urtaro baten giroan murgildu.	- Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. - Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. - Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. - Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. - Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	- Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. - Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. - Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). - Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)

Lehen ariketa : kantua entzun eta ulertu ondotik, haurrak gogoz ikasi behar du.

Bigarren ariketa :

- Hurrei emaiten zaizkie eranskinean dauden bi marrazkiak : batean soroa eta bestean udaberriari doazkion elementuak (xoriak, loreak, usaina, kukua, zuhaitza, hostoak, erleak, pinpilinpauxak/tximeletak).
- Haurrak, elementu guztiak moztu eta, kantua ordenaren arabera itsasten ditu paisaia (soroan).
- Elementu arrotza baztertzeko du (hostorik gabeko zuhaitza).

☺ Soroa apain ezazu udaberriko elementuak itsasiz. Gero marrazki osoa margo ezazu.

Osatzeko :

- **entzun** *J'écoute les sons de la Nature* KDa. NASHVERT Production.
- **entzun** *Chants des 4 saisons. Calendrier sonore de la nature*. 09307. Sitelle
- **ikus** *Udaberria* kantua. Gure abestiak 3.4. Heziketa musikal naturalerako haur abestiak.
- **ikus** *Hitzak jostailu*, 29. or. eta 66. or. J. Ormazabal. Elkar.

